

Bizitza luzea Cutre Chou-ari!!!

Cutre-ko nire lagunei eta beren zaleei

Miguel Benlloch

Corpusaren feria, Granada. Urtea, 198... pasata. El
Meneillo txosna, CUTRE CHOU-ren emanaldia. BI EMANALDI
BAKARRIK. Asteazkenean eta larunbatean. Goizeko lean.

Eta han, gaueko hamaiketatik, Cutre konpainiakoak saiorako makilatzerara eta mozorrotzera gindoazen, agertokiaren azpian zegoen aldagela batean, makurtuta eta konkortuta zorutik sabaira zeuden ehun eta berrogei zentimetroengatik; bonbilla baten argipean kutxatik urte hartako jantzi eta apaindura berrienak irteten ziren. Han behean bizitza borbor ari zen barre eta espantuz beteriko asaldatzaile marxista leninisten dogma ihauteri-aztoramenezko ikuskizun bihurtzen zela ikusten genuen heinean, lentejuelen, beloan, hankartekoen, gezurrezko bularren, ezinezko ileordekoen, abagunerako prestatuko arropen algara hura... Margotutako ezpainak, nahastutako generoak, urratuz jositako mediadun fotonobela-kabaret bat. Eta... non jarri duzu hori, eman ezpainetakoa eta errimela edo margotu nazazu, Nico, nik bakarrik ez baitut nire burua ikusten. Bitartean, agertokiaren behealdean estaltzen zuten oihalen zuloren batetik zain zegoen publikoa ikusten zen, hitzorduari leial eutsiz Cutre! Cutre! garrasika hasi zena. La Estrella, La Lola, La Santa, Santaellaren laburdura, supervedette bihurtzen ari ziren, Corpusaren gaueko izar, eta ez zegoen minutu haiek baina gauza dibertigarriagorik, dena hasteko prest zegoen, pozaren pozez zeuden hamarka pertsonen orroen artean; orduan ikuskizunari hasiera ematen zion musika entzuten zen eta aurkezle xelebrea, transgenerizatua

dig me out

irteten zen hitzaldi elokuyente eta puztu batekin
ongiotorria ematera, gau hartan karpa handi haren azpian
egoteko zoria zutenek ikuskizun hura ikusteko aukera
izateagatik zuten zorte ona azpimarratuz: CUTREEEEE
CHOUUU!!!!

CUTRE CHOU, lagun-talde bat, gehienak Granadako Andaluziako
Mugimendu Komunista erakundeko kideak, txosnari izena
ematen ziona hain zuzen ere, baina hirurogeita zortzikoa
dirudien izen hantustea, "Mugimendua", "El Meneillo" izenaz
ordezkaturik, giro alaiarentzat egokiagoa zena. Hau gure
taldexka kutunaren baliabide ekonomikoak lortzeko gune
nagusia zen. Garai hartan talde honen teorizazio eta
asaldura lan nagusiak OTANen aurkako borroka,
bakezaletasuna, ekologia eta borroka feministen garapena
izan ziren, funtsik gabeko trantsizioa finkatu, PSOE
gubernura heldu eta ez zela iraultzarik egongo egiaztatu
zenetik. Esparru horretan jaio zen Cutre konpainia,
aztoramen-espazio berri bat, frankismoaren aurkako
borrokaren nekea eta kolore zuri-beltza atzean utzi
zituen; hura, nolabait, adostutako haustura batek,
trantsizioak, garaitu zuen eta honek ezker iraultzaileko
alderdiak ia erabat desagertzea ekarri zuen. Cutre taldeak
ziurtasun iraultzaileen maximalismoekiko haustura eta
feminismoa eta sexualitate librea bezalako borroka-gai
berrietara irekitzea adierazten zuen, gure bizitzak
aldaketa sozialen erdian jartzeko zituelarik. Baina batez
ere, Cutre taldea gure artean genituen estimuen adierazpena
zen eta barrea eta astrakanada partekatzeke giro batean
ospatzeko prest geunden, horrenbeste porrot bizi ondoren.
Bizitzak gora egiten zuen, itxurazko trapezioaren altuerak
egiten zuen bezala. Bertan, Pinito del Oro, Juanma, tul eta
distiraz jantzirik, bere kapa hegalariarekin, goietara
igotzen zela zirudien, bere bizitza arriskaturik etengabeko

dig me out

arrisku-saltoekin, mendeko gisa jarduten zuen bere senarrarekin batera. Honek zirku-ariketak burutzen zituen eta zeremonia-maisuaren puztutako kontaktetan benetakoak ziruditen.

CUTRE CHOUUUU!!! Agertokian edozein astakeria, inprobisazio, eldarnio, neurrigabekeria, gidoia haustea eta azken orduan atzera egin zuen norbaiten hutsunea onartzen zituen izena. Besarkadak, barre-algarak, baita emankizunaren erdian agertokian piztutako haserrealdiak ere: "Santa, atera zaitez, politta, ezin dugu-eta hau gelditu"; eta aurkezleak, nik neuk, agertokia uzten zuen mikroa eskuan eta alboan, gortina beltzaren atzean zegoen aldagelara joaten zen, zuzenean kontaktuz han zegoen trangatzea, antzezleen artean gertatutako protagonismo-atsekaberen batengatik, saioa hastea eragozten zuena: eta jendearen barreak entzuten ziren hutsik, utzita zegoen agertokiaren aurrean, Santa irteten zen arte, kopeta belztuta baina zoragarri, eta taldearekin elkartzen zen ondokoa abestera: somos las nadadoras, vamos siempre adelante, nuestro ánimo no tiene fin... (igerilariak gara, beti aurrerantz goaz, gure asmoak ez du amaierarik...) Erresistentziari egindako abestia zen, lentejuelaz betea, ballet inprobisatuaren gerria inguratzen zuen plastiko bizi-bizizko flotagailutik ahate-buru bat irteten zelarik. Balleta bereizi egiten zen izugarrizko nahastearekin eta horrek ikusle beroen txaloak eta garrasiak eragiten zituen, hatzekin adierazten zituztelarik beren eraldatutako burkideen aurpegiak eta mugimenduak. Hauek rolak azpikoz gora jartzen zituzten, maskulinoa eta femeninoa zena nahastuz, eta esan genezake urte batzuk geroago feminismoen eraldaketan bertan queer delakoa esan nahi zuena adierazten zutela.

dig me out

Cutre-a osatzen zuten saioek uneko abesti herrikoiak, koplak, rancherak... biltzen zituzten eta horien hitzak aldatu edo moldatu egiten ziren zentzu berria emateko edo hitzen zentzua mozorroaren bidez aldatzen zen parodia eraginez; parodia kritika egiteko edo performance-erakuntza baten bidez kontatzen zuten ispilu deformatzaileen diskurtso bat agertarazteko. Barrutik kontatzea.

Gogoan dut Moja Basatiaren saioa: plastiko gorrizko coca-cola kaxa baten gainean, geldi estatua bat bezala, berdez eta gorriz jantzita, eskutan perexila daraman San Pankrazio bat bezala parpailaz inguratuta zegoen Pepe Alfarcargoa zegoen, argal, ziur aski kolokatuta baina geldi, infiniturantz begira. Behean, santuaren aurrean belaunikatuta, jendeari bizkar emanaz, moja bat zegoen, soinean zebra-marrazko toga bat zuena. Beste munduko ahots batez poliki-poliki zera zioen: Yooo lo queee quieeeeero es que me coooma el tigre, que me coooma el tigre, que me cooooooma el tigre... Zenbait aldiz errepikatzen zuen eta errepikapen bakoitzean azkarrago zihoan, musikak eta abestiak txosna osoan Rosa Morenaren bertsioan eztanda egiten zuen arte. Orduan, eroaldi batean, mojak zebra-toga utzi eta transgeneroa agertzen zen tantodun txabusina bat soinean zuela, que me coma el tigre, que me coma el tigre tus carnes morenas hitzen erritmora jaikiz; San Pankrazioren tunika berdea, Pepe Alfacar-koa, jirabiraka deabrututa, karmin koloreko ezpainekin eta lore bat zuen soilgune handi batekin, jendea garrasika eta barrez lehertzen zen bitartean. Dantza eginez desagertzen ziren eta argia itzali egiten zen saioari amaiera emanaz.

Laurogeigarren hamarkadaren hasieran, Cutre-k komedia musikal moduko bat egin zuen, saioa osatzen zuten

dig me out

pertsonaia ezberdinen elkarrizketak osatzen zituen testua playback-ean zelarik. Gidoi zentzugabeak, istorio baten bidez Lola Portukoa, nire Lola, Montserrat Caballé-ren ahizpa mexikarraren maitasunak kontatzen zituen, bere senarrarekin. Sexualitate anitz ezkututzen zituzten pertsonaiak erakusten zituen eta hainbat korapilo, kolonbiar fotonobelaren eta andaluziar komedia kostubristaren nahaste batean kontatuta. Cutre-a jada ez zen inprobisazioaren esku-hartze orokor baten lehenengo modua, baizik eta orain gidoia eratzeko modua zen, prestatze-bileren erdian agertzen ziren arabera itsatsiz joaten ziren atalen erabilera. Bilera horiek urriak ziren eta horri esker ez zen horrenbeste bilatzen prestatuko produktu bat, baizik eta produktu bizi eta fresko bat, gertatzen ari zitzaizkigun gauzez betetakoa, hedatu eta kontatu egiten zirenak. Zentzu horretan Cutre-ren saioak atzerkitik, entseatutakotik urruntzen ziren ekintzak ziren.

1992an, Amerikaren aurkikuntzaren bosgarren mendeurrenaren oroipenaren urtean, Sevillako Expoaren etaartzelonako Olinpiaden urtean, Cutre-ak urte hartan errebista eta aldizkaria osatzen zuten saio eta aleekin, hurrenez hurren, eragin zuen eldarnioa kontaezina izan zen. Aurkikuntzatik 500 urte igaro ondoren han entzuten zen *Él vino en un barco de nombre extranjero, lo encontré en el puerto un anochecer...* (Bera izen atzerritarreko ontzi batean etorri zen, portuan aurkitu nuen iluntze batean...) Estrella indiar ederrak abestuta, Yuman, Sara Montiel bezala jantzita. Bitartean, atzean, kartoizko itsasontzi batean Kolon agertzen zen adats hori batekin, Juanmak Stan Laurel-en moduan jartzen zuen izutu aurpegiarekin, Isabel erreginaren izenarekin tatuatutako besoa erakutsiz. Bitartean ondokoa entzuten zen:

dig me out

Mira mi brazo tatuado
con este nombre de mujer,
es el recuerdo del pasado
que nunca más ha de volver.
Ella me quiso y me ha olvidado,
en cambio, yo, no la olvidé
y para siempre voy marcado
con este nombre de mujer.

(Ikusi nire beso tatuatua
emakume honen izenarekin,
iraganaren oroitzapena
sekula itzuli behar ez duena.
Berak maite ninduen baina ahaztu egin nau,
nik, aldiz, ez nuen ahaztu
eta betirako markatuta nago
emakume honen izenarekin).

Edo gimnasia erritmikoko taldea bezala jantzitako bost
lagunen eroaldia, lehiaketetako ariketetan erabiltzen diren
zintak, baloiak edo uztaiak botatzen zituzten bitartean,
mugimendu arritmikoekin eta espantuekin auskalo zer motako
balleta osatuz, agertokiaren atzealdean. Aurrean, Carmelok,
gizen bere urre-koloreko jantziarekin, Montserrat Callaté
bizardun batena egiten zuen, operatutako globo itxurako
bularrekin, hirurogeita hamargarren hamarkadako
adatsarekin, adats batean bildu zuena edo bildu ziotena. Ez
zen garbi bereizten Montserrat zen ala sumu trans gerlari
bat. Bere alboan, Freddy Mercury-ren bertsio bat zegoen,
Juan Meca-ren erara, jainkosaren ondoan dotore eta baxua,
honekin batera kantari ari dena, xaramelen artean,
soinubakarrean, olinpiar jokoen gorespina Barcel000na !!!!
Barcel0000na!!!! Barcel00000na!!!!

dig me out

92ko une gorenaren Cadizko ihauteri-ikuspegiak 93ko hondamendia erakusten zuen barre-algararekin, joko batzuekin ospatu zen PSO Eren 10 urteko erregealdiaren eta Aurkikuntzaren nostalgiaren aurrean.

Kultura herrikoi gisa ulertu denaren modu anitzen nahasketa abestietan, antzerkia, komedia kostunbrista, telenobela, betegarriak, varieté-ak, lehenengo giroko tabernen trans ikuskizunak 70. hamarkadaren amaieratik, ez panfleto gisa baizik eta generoen, diskurtso feministen, ikuskizun-politiken, bizitza ekintza gisa hartzearen nahasketan lan egiten duten irudien justaposizio gisa igortzen diren ikuskera politikoekin, eta hori guztia trabatuta barrea eragiteko, ikusleak gertatzen den horretan harriduraren bitartez tartean sartzera daramatzaten irudiak etengabe ematen dituen kaleidoskopio baten bidez: hori da cutre delakoa.

Cutre Chou-k 20 urte pasata jarraitu du ondoren urtez urte Granadako Corpus-era joaten diren ikus-entzule pribilegiatuen artean antzerako efektuak sortzen.

Bizitza luzea Cutre Chou-ari!!

Argazkiak: Gracia Gámez